

Oroimenaren barna: Ganizon Bergara «Txistu»

Ganizon Bergara (Txistu), 1949tik bizi da Senpereko Cherchebruit auzoan. Bere bizian zehar kantu ainitz ikasi izanagatik dugu ezaguna.

Bizitzan ainitz kantu ikasi omen duzu: horri buruz oroitzapen bat?

Ximun Haran-en diska batean parte hartu nuen. Bertzalde, kantu xapelketak gisakoak antolatuak ziren, nahi zuenak nahi zuena kantatzeko. Hor, juje gehienak apezak izaten ziren. Jujatzeko kantuaren moldeari, aireari eta ene irudiko hitzari kasu egiten zuten.

Horra final erdian kantatu nuena: Errakozu nere partez mila goraintzi zure adiskide Mr Barnetxi Sarakoari ongi pena dudala segurki egundaino ez dudala hura baizik utzi «Satisfatu gabe ederki» kausa zer den berak badaki neskatile gaztekin omen dela bizi... dibertituz ederki ez da dibertitu aski ez eta ez ditu ere kitatu naski haren begiak hain dire argi izarra iduri eta koloreak ehun ostoko arrosa bezain gorri neskatile gazten ilusigarri karesatzen ditu ederki, denboraz balia bedi.

Hori kantatu ondoan horra zer entzun nuen Moulier-en ahotik (Otxobi): «C'est un chant satirique» (Kantu satiriko bat da).

Nahiz eta neretzat moldatzea zen inportanteena, iduritzen zitzaidan hitzari eman ziotela toki gehiago.

Finalean, Axularren itzala kantatu nuen eta prima irabazi nuen, Axular haien aldekoa baitzen.

Zuhaitz haundiak, lore ttikiak berekin dakar itzala nahi bezenbat argitugatik gizon orok hala-hala itzalik gabe aritua naiz aingeruak ditezkel horra nun dioten Axularrez «itzal gabe bizi zela»



Ganizon Bergara «Txistu» kantari.

Sara herrian ene anaiak eskuetan basoak har gure bihotzen erdi erditik gora guziek Axular.

Jainkoarenak hartu ondoan, diote Axular jaunak Salamankan hartu zituela eskolak deabruarenak saritzat zer utz galtza gorriri gure apez euskaldunak utzi ziozkan aztaparretan zituzkeen itzalak denak.

Sara herrian ene anaiak eskuak elgarri guk har gora iturri Elizanburu gora guziez Axular.

Apezek gehiago maitatu zutela bertsu hau uste dut. Bertsu hunen iturri alegia bat da eta huna zer dion: Erraten

zen Axularrek deabrua ikusi nahi zuela eta iduriz leize batean egoiten zen deabrua. Hara joan eta mintzatzen hasi ziren. Deabruak erran zion Salamankan ez zituenak ikasi hark erakatsiko zizkiola. Axularrek onartu zuen eta eguraldi on batez eman zuten hitzordua. Lehen eguraldi ona ailegatu zelarik, joan zen leizera, argitasun batzu eman eta deabruak sari bat galdegin zion argitasun hoiene truke. Axularren itzala leize barnean sartzen zen momentuan, hori hartzea galdegin zion eta Axular itzalik gabe gelditu zen.

Aita Donosti ezagutu zinuela ere erraten da. Zer ekintza mota egiten zituen?

Zortzi edo bederatzita urte nituelarik ezagutu nuen, Sarara etortzen zen. Etxez etxe ibiltzen zen bertsu eta aire bila.

Aspalditik bizi zira Cherchebruit auzoan. Nondik heldu da izen hau?

1949tik bizi naiz Cherchebruit-en. Nere aitatzik erraten zidan Napoleon IIIa bakantzetarot etortzen zela Biarritzera eta Cherchebruit-era ehizara heldu zela. Laborariak maite omen zituen eta baserri esperimental bat egitea pentsatu zuen «Chateau»an. Hortako, langileak behar ziren eta Senperen ez baitzen aski langile, kaskoinak deitu zituen. Orain bezala, lehen ere ez ziren ongi konpontzen euskaldun eta kaskoinak. Gauetan, arno barrikaren inguruan egoitean ez ziren ongi bukatzen arratsak.

Kaskoinek, beraz, Cherchebruit izendatu zuten toki hori.



Txisturi 1947an ateratako argazkia. Musée Populaire des traditions, Parisen, gordea da. Behean, Moulier «Otxobi».

Camy, Senpereko mera izanak bazuen bertze bertsione bat. Harek zion: «c'est un quartier tellement calme qu'on cherche le bruit!».

Badakizu zoin den auzo hunen euskal izena?

Ene familian Hiriburu erraten zuten. Sararen burua eta Olha auzo ingururen burua.

Zein nahiago duzu, Cherchebruit ala Hiriburu?

Hobea da Hiriburu Cherchebruit baino. Hobea da euskara kaskoina baino.

Zer pentsatzen duzu euskararen egoeraz Senperen?

Nere ustez sobera gazte mintzo da frantsesez. Nola gero ta gehio erdaldun heldu den Senpererat eta gero ta guttiago euskaraz mintzo, iduritzen zait ez dela hain bide onetan ibilki euskara; Senperen partikulazki.

Zure gaztaroan, egoera berdina zen?

Ez. Denek euskaraz mintzatzen zuten. «Assistance»ko ainitz heldu ziren familietarat eta denek euskara ikasten zuten. Eta orain, hemengo euskaldunen umek ez dakite!

Zer mezu emango zenioke gazteriari?

Ez du nehoi kalterik egiten euskara jakiteak eta euskara zaintzeak behin ere baino balore gehiago du bizi giren tokian. Guk gure izena eta lenguaia atxiki behar ditugu. Begira, mezan ere, lehen dena euskaraz egiten zen eta bilduma frantsesez. Orain dena frantsesez eta bilduma euskaraz.

**KANTU ZAHARRAREN
EGUNA
UZTAILAREN 16an
INARREAN**

**TTIPI-TTAParentzat
laguntza
Credit Agricole Senpere
Kontua 41004448030**



Maiana Mendiburu